



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 18a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (16. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babes emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (16. or.).
- Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (16. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jabetza horizontalaren gaineko jarduketei buruzko legediaren aldaketa susta dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, 2009rako opera programazioaren gaineko koordinazio ezari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak jorratu zituen berritasunetako bat Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoa arautzea izan zen –VIII. tituluari; araututa gelditu zen foru lege horretatik aurrera, eta honakoek osatzen dute ondare hori: enpresa-entitate publikoak, sozietate publikoak eta gainerako sozietate-partaidetzak.

Foru lege horrek, aipatutako forma juridiko bakoitzaren kontzeptua definitu eta haien araubide juridikoa zehazteaz gain, 104. artikuluan –enpresa-ondare publikoaren berregituraketa- ezarri zuen Nafarroako Gobernuak aukera izanzen zuela, beste ekintza batzuen artean eta ondarearen arloan eskudun den departamentuak proposatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitateko akzioak eta sozietate-partaidetzak bere sozietate publikoetan sartzeari erabakitze; arau horretan berean zehaztu zituen, gainera, Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-ondarearen titularitate aldaketak eta barne berrantolaketak bete beharko lituzketen baldintzak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietate publikoa sortzeari buruz-

ko foru lege honen bitartez, aurrerago adieraziko den moduan gauzatuko da legez emandako ahalmen hori, xedea izanik, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoaren zati funtsezko baten (batez ere sozietate publikoak) eraginkortasuna eta eragimena arrazionalizatu, koordinatu eta ahal den onena bilakatzeko testuinguru bat eta tresna bateratu eta berariazkoa sortzea, kontuan hartuta menpean dituzten administrazio publikoek, beraien tresnak baitira, horien kudeaketa eta baliabideen erabilera zaindu behar dituztela; bestetik, interes publikoko jarduerak sustatzea, ezertan galarazi gabe, Espainiako Konstituzioaren 128. artikuluan jarduera ekonomikoko ekimen publikoari buruz aurreikusten denari erreparatuta, industria eta merkataritzako jardueretan aritzea ere, jarduera horien izaeratik beragatik merkatuko arauari eta errentagarritasun ekonomikoaren printzipioari men eginez, betiere.

Foru lege honen helburua ez da soilik, lehen aipatu bezala, arrazionalizatu eta ahalik eta onena bilakatzeko bide emanen duten sistemak eta testuinguruak sortzea, baizik eta horiek lortzeko erabili beharreko irizpideak ere ematea, Nafarroako enpresa publikoen sektorearen gardentasunean eta prozesu iraunkorren ezarpenean oinarrituta, aukera eman dezaten hainbat helburu erdiesteko, besteak beste, enpresen kudeaketa publikoa korporazioen erantzukizun sozialaren printzipioetara egokitzea; balio publikoa nahiz pribatua sortzea; kudeaketaren jarraipena eta jarraibideak zehaztea eta jarduteko politika bateratuak ezartzea; sozietateetan neurri egokiko egiturak ezartzea, enpresa ekintza publikoa gainezkatzea eta barreiatzea saihesteko; jarduera publikoak garatzeko politikak eta beste zenbaitetan errentagarritasun ekonomikoaren printzipioei men egin beharra, zenbait sozietatek merkatuari begira egotearen ondorioz; langile-erien arloko politiken aplikazioa; partaidetza handiena Nafarroako Foru Komunitatearena duten

sozietateak ente instrumental gisa mugatzea, eta azkenik, enpresen arteko lehia libre sustatzea.

Helburu publiko orokor horiek behar bezala betetzeko eman da foru lege hau, ekintzak eta antolaketa bideak honela egituratuta dituena: hamabi artikuluko -bi titulutan bilduta- bost xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, hiru azken xedapen eta hiru eranskin.

I. titulua zazpi artikuluko ditu, eta bertan foru lege honi zentzua eta izena ematen dion funtsezko lehen ekintza xedatzen da, hau da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sortzen da, zuzenean Nafarroako Gobernuaren menpe dagoen sozietate publiko nagusia, zeinaren helbururik behinena, foru legeak bere eranskinean zedarritzen dituen akzio eta sozietate partaidetzak esku-ratu ondoren, partaidetza duen sozietateen antolaketak eta koordinazioa bideratu eta betearaztea izanen baita, esleitzen zaizkion eginkizunekin bat.

I. titulua osatzeko, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren araubide juridikoa biltzen duten arauak ezartzen dira bertan, hurrenez hurren honakoak erregulatzeko –aplikatzekoak diren beste arau batzuen aipamena eginda–: kudeaketa organoak, jarduera betetzeko izanen dituen baliabide ekonomikoak, kontabilitate, aurrekontu, zerga eta langileen kontrataziorako araubidea, eta sozietate publiko honek ondarearen arloan eskuduna den departamentuari aldizka igorri behar dion informazioa.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren sorrera xedatu eta araubide orokorra araututa, II. tituluan, bi kapitulutan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-ondare publikoa, bertan sartutakoa, berrantolatze-ko ekintzak ezarri eta egituratzen ditu.

Horrela, lehenengo eta behin, arautzen da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n sartzeari Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitate zuzenekoak diren akzioak eta sozietate-partaidetzak, foru legearen 1. eranskinean jasotako sozietateen kapitalaren adierazgarri direnak, osorik edo hein batean; bigarrenik, berriaz aurreikusten da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k, sozietate nagusiaren izaera hartu ondoren eta beharrezkoak diren berrantolatze ekintzen ondorioetarako, eskatu ahal izanen die bere partaidetza duten sozietateei sozietate antolatze-ko beste edozein ekintza bete dezatela, hala nola, eraldaketa, bat egitea, zatiketa, likidazioa, ekintza horien helburua izanik enpresa-ondare publikoaren zati zehatz horren jarduerak arrazionalizatzea.

Foru lege honetan aurreikusirik dago akzio eta sozietate-partaidetza zehatzak sartzeari Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n, baina horrek ez du kentzen aurrerago gehiago sartzeari arau honetan ageri diren ondorioak aplikatuta.

Bestalde, berritasun garrantzitsu bat sartu da, alegia jarduerako bi sektore ezarri direla, Administrazioarena eta lehiakortasunarena, eta bertan sailkatuko dira partaidetza handiena, zuzenean nahiz zeharka, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.rena duten sozietateak –haien jarduerak, gehienbat eta modu egonkorrean, interes publikokoak (Administrazioaren sektorea) edo industria eta merkataritzaren arlokoak (lehiakortasunaren sektorea) diren kontuan harturik-, foru lege honen oinarrian dauden printzipioak, hau da, antolaketa, baterako kudeaketa, balio publiko edo pribatua sortzea eta kontrola, bermatzeko; berme publikoko printzipio horiek garrantzi handiagoa dute Administrazioaren sektorean. Sozietate nagusiari dagokio sozietateak sektore batean edo bestean sailkatzeko proposamena, foru lege honetan zehaztutako irizpideak aplikatuta. Ondorio hauetarako, sektore bakoitzaren arauak eta jarduketak printzipioak ezartzen dira, sozietate bakoitzak betetzen duen jarduera zertara bideratzen den, Administrazioa, industriara edo merkatura, hortik modu logikoan eta berez sortzen diren arau eta printzipioak, hain zuzen ere.

Araupetze honen asmoa da, halaber, behar den eta desiatzekoa den gardentasuna ematea Nafarroako Foru Komunitateko enpresen sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari eta foru erkidegoak beste entitate edo proiektu batzuetan duen partaidetzari, eta horren guztiaren kontrol publikoa egin ahal izateko behar diren tresnak ezartzea; horretarako, izan ere, kudeaketa administratiborako tresna berriak erabiltzea ahalbidetuko da, baina horrek ez du jardueretan inongo opakutasunik ekarriko.

Azken batean, lege mailako arau honekin, Nafarroako Foru Komunitateari foru erkidegoko Administrazioaren kudeaketa hobetzeko tresna bat eman nahi zaio. Honakoak izanen dira horren oinarriak: kudeaketa publikoaren kalitatea hobetzeko irizpideak, Nafarroako gizarte osorako balioak eta aberastasuna sortzen laguntzea, gure erkidegoko gizarte ongizatearen mailak finkatzea eta hobetzea eta Administrazio osoa eta enpresen sektore publikoa modernizatzea.

I. TITULUA**Nafarroako Enpresa
Korporazio Publikoa, S.M.P.**

1. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sortzea.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean eta merkataritzako legerian aurreikusitakoarekin bat, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sozietatea sortuko du, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak osorik harpidetutako kapitalekoa, pertsona bakarreko sozietate mugatuaren izaera hartuko duena, bere nortasun juridikoarekin eta bere sozietate-xedearen esparruan aritzeko gaitasun osoarekin.

2. Haren izena "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P." izanen da, eta hasierako kapitala 250.000 eurokoa.

3. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k mugagabeko iraupena izanen du, eta eratzeko eskritura egilesten den egunean hasiko da jardunean.

4. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k ez du atxikirik izanen eta ez du beteko aginte publikoaz baliatzea dakarren ahalmenik; foru lege honek, sozietatearen estatutuek, zuzenbide pribatuko arau zibilek, merkataritzakoek eta lan arlokoek, aplikatzekoak direnek, zuzenduko dute, bai eta ondare, aurrekontu, kontabilitate, finantzen kontrol eta kontratazioaren arloetan aplikatzeko den araudi administratiboan ezarritako berezitasunek ere.

5. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. ondarearen arloan eskuduna den departamentuari atxikita egonen da.

2. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren eginkizunak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k eginkizun nagusi hauek izanen ditu:

1. Oro har:

a) Eskubide, akzio eta sozietate partaidetza mota guztiak eta edozein motatako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren gainerako tituluak harpidetu, bereganatu, eskuratu, administratu, gozatu, eskualdatu eta besterentzea, salbu eta Korporazioaren sozietatearen kapitalaren zati bat besterentzea edo eskualdatzea.

b) Mota guztietako azterlan ekonomiko eta sektorialak egitea.

2. Horrez gain, partaidetza handiena, zuzenean nahiz zeharka, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren duten sozietateei dagokienez:

a) Sozietateen funtzionamendua eta jarduerak koordinatzea, haien organoen bitartez, eraginkortasun, eragimen eta balio-sorkuntzaren irizpideak aintzat hartuz.

b) Sozietateen kudeaketa eta egoera ekonomiko finantzarioa modu egokian eta unean unekoan ezagutzeko aukera ematen duten tresnak eta teknikak garatzea.

c) Aginduak, jarraibideak eta prozedurak diseinatu, onartu eta haien jarraipena egitea, arlo hauetara lotutako gaietan: aurrekontuak, inbertsio planak, plan estrategikoak, finantzaketa eta baliabide berekien egiturak, bazkide politikak, barne kontrola, kalitatea, homogeneizazioa, administrazio araubidea, barne antolaketa, higiezinaren eta gainontzeko ondarearen kudeaketa, langileen arloko politikak, korporazioaren irudia, informazioaren teknologiak, Korporazioaren erantzukizun soziala eta Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren partaidetza duten sozietateen beste edozein, hori guztia ezertan ukatu gabe Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen esparruan, aurrekontu, finantzaketa eta ekonomia eta kontabilitateko kontrol eta informazioaren arloetan eman ditzakeen arauak eta jarraibideak.

Aurreko agindu, jarraibide eta prozedurak partaidetzako sozietate bakoitzean ezarri eta garatuko dituzte haren organoek.

d) Mota guztietako finantza eragiketa aktibo eta pasiboak diseinatu eta egitea, zein den ere haiek gauzatzeko bidea, bonuak, zor-agiriak eta antzeko tituluak jaulkitzea barne, eta halaber diruzaintza eta zorra kudeatzeko beste tresna batzuk ere, hari eta partaidetzako sozietateei dagokienez. Era berean, sozietate horiek itundutako finantza eragiketarako bermatu ahal izanen dituzte.

e) Aholkularitza eta laguntza teknikoak.

f) Mota guztietako azterlanak, txostenak, ebaluazioak, memoriak eta analisiak egitea, kudeaketa-ri, egiturari, dimentsionatzeari eta egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzkoak.

g) Partaidetza duen enpresen komunikazio politikak koordinatu eta bateratzea.

3. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren kudeaketa organoak.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren kudeaketaz eta administrazioaz administrazio kontseilu bat arduratuko da; kontseilu horre-

tako kideak ondarearen arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoarekin bat izendatuko dira.

2. Administrazio kontseiluko kideen erantzukizun eta bateraezintasun araubidea, eta haren zuzendaritza nagusiarena edo gerentziarena ere, arlo honetan aplikatzekoa den foru araudian eta merkataritzari buruzko legeetan xedatutakoa izanen da. Administrazio Kontseiluko kideen kopurua hiruren multiploa izanen da; hain zuzen ere, hirukoa gutxienez ere eta hamabikoa gehienez.

3. Administrazio Kontseiluan modu proportzionalan egonen dira gizonetzkoak eta emakumezkoak, halako moduz non ehunekoa ez den izanen, ez batzuen ez besteen kasuan, ehuneko 60tik goitikoa.

4. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren bazkide bakarrak izendatuko ditu Administrazio Kontseiluko kideak: heren bat Nafarroako Gobernuak proposatuta, heren bat Nafarroako Parlamentuak proposatuta eta heren bat izen handiko profesional independenteen artetik. Ondare arloko eskumena duen Departamentuko kontseilaria izanen da Kontseiluko lehendakaria, zeina Nafarroako Gobernuak proposatutako herenaren baitan izanen den Kontseiluko kide.

4. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren baliabide ekonomikoak.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren helburuak betetzeko behar diren baliabideak hauetatik etorriko dira:

a) Sozietatearen hasierako kapital ekarpena, bai eta sozietateak egindako kapital gehikuntzak, zeina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak soilik sinatu ahalko baitu.

b) Haren ustiatze emaitzak eta haren ondarearen eta finantza aktiboen produktuak, errentak eta gehikuntzak.

c) Partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateetatik jaso ohi dituen diru-sarrerak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. berak zehazten dituen kontzeptu, prozedura eta zenbatekoarekin bat.

d) Partaidetzako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren tituluen eta partaidetzen balioaren itzulketa sozietatearen eragiketak betetzean.

e) Partaidetzako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren tituluen eta partaidetzen salmentaren emaitza.

f) Partaidetzako sozietateetatik edozein titulu edo negozio juridikoren truke lor daitezkeen diru-sarrerak.

g) Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-esleipenak.

h) Nafarroako Gobernuaren, haren organismoen edo erakundeen mandatuetatik datozen ekarpenak.

i) Edozein administrazio publiko eta erakundearen diru-laguntzak eta transferentziak.

j) Europar Batasunean ezarritako funtsetatik edo nazioarteko nahiz Espainiako funts publiko edo pribatuetatik jaso ditzakeen laguntzak edo maileguak.

k) Finantza entitate publiko edo pribatuekin itundutako finantziazio eragiketak.

l) Legez, erregelamenduz edo estatutuz aitortutako beste edozein baliabide.

2. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako berme eta abalen onuradun izan daiteke.

5. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren kontabilitate, aurrekontu eta zerga araubidea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren kontabilitate, aurrekontu eta zerga araubidea Foru lege honetan, haren estatutuetan, merkataritzako zuzenbidearen arauetan eta aplikatzekoa den araudi administratiboan xedatutakoak zuzenduko du.

6. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren langileriaren arloko araubidea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren langileen kontratazioa Lan Zuzenbideari lotuko zaio.

Edozein kasutan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.U.k behar den prozedura ezarriko du, bere langileen hautaketa publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat egin dadin ziurtatzeko. Goi zuzendaritzako langileak kontratatzerakoan, aldiz, ez da horrela jokatu; izan ere, halakoetan hautaketa lan harreman mota horri datzekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

7. artikulua. Informazioa emateko betebeharra.

Nafarroako Gobernuak erabaki bidez zehaztu du zein den Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k ondarearen arloko eskudun den departamentuari aldizka igorri beharko dion informazioa.

II. TITULUA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n sartuko den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa ondarea berrantolatzeko ekintzak

I. KAPITULUA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n akzioak eta partaidetzak sartzea

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzeneko titularitateko sozietateen kapitalaren adierazgarriak diren akzioak eta partaidetzak sartzea.

1. Nafarroako Gobernuak, egin beharreko jarduketa juridikoak aldeztu aurretik eginda eta ezertan ukatu gabe merkataritza eta administrazio arloko legeekin bat beharrezkoak diren eragiketa eta negozio juridikoak, erabakiko du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n sartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzeneko titularitateko akzio eta partaidetzak, sozietate publikoen kapitalaren adierazgarriak direnak, osorik edo hein batean.

2. Sozietate publiko berri bat sortzen denean edo edozein entitatearen akzioak edo partaidetzak zuzenean eskuratuz gero, Nafarroako Gobernuak erabakiko du nola sartuko diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n, hala egiten bada.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren sozietateen kapitalaren adierazgarriak diren akzio eta partaidetzak titularitatea aldatzeko ekintzak ondarearen arloan aplikatzeko den araudian aurreikusitako moduan eginen dira, eta ondorio bereberekin.

9. artikulua. Sozietateen aldaketak eta berregituraketak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duen sozietateetako organoetara eskatu ahal izanen die bat egin, zatitu, eraldatu, desegin eta likidatzeko eragiketak eta sozietatea berregituratzeko beste edozein bete ditzaten.

II. KAPITULUA

Jarduera sektoreak

10. artikulua. Partaidetzako sozietateen antolaketa jardueren sektoreen arabera.

1. Bere partaidetzako sozietateak antolatu eta kontrolatze aldera, eta ezertan ukatu gabe bazkide den aldetik merkataritzaren arloko legeekin bat izan ditzakeen ahalmenak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k proposatuko du par-

taidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateak bi jardueren sektoretan sailkatzea: Administrazioaren sektorea eta lehiakortasunaren sektorea. Proposamen horrek ondarearen arloan eskuduna den departamentuak onesten duenean izanen ditu ondorioak.

2. Administrazioaren sektorean sartuko dira, eta beraz hurrengo artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako berezitasunen menpe geratuko, nagusiki eta modu egonkorrean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat edo haren kontura interes publikoko jardueretan aritzen direnak.

3. Lehiakortasunaren sektorean sartuko dira, eta beraz hurrengo artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako berezitasunen menpe geratuko, nagusiki eta modu egonkorrean industriaren edo merkataritzaren arloko jardueretan aritzen direnak.

4. Sozietate bakoitza bi jardueren sektore horietako batekin lotzeko, kontuan hartuko da sektorean sartzea eragin zuten baldintzek denboran irauten duten, eta beraz, baldintza horiek aldatuz gero berriz eginen da sailkapena.

5. Sozietateak Administrazioaren Sektorean sartzeak ez du nahitaez berarekin ekarriko ohiko funtzionamendua diru-laguntza publikoen mende egotea.

11. artikulua. Administrazioaren sektorea eta lehiakortasunaren sektorea.

1. Administrazioaren Sektorearen barrenean dauden sozietateek, besteak beste, arau hauek bete beharko dituzte:

a) Kontratu Publikoetara buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Legea, haren 2.1.e) artikuluekin bat.

b) Bere langileen kontratazioa Lan Zuzenbideari lotuta eginen da, publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak errespetatuz hautapen prozesuetan, goi zuzendaritzako langileen kontratazioa izan ezik, lan harreman mota horri datxekion elkarrenganako konfiantza oinarrituko baita.

c) Haren jardueren Parlamentuaren kontrolaren menpe geldituko da, arloan aplikatzekoak diren foru legeetan aurreikusitako moduan eta iraupenarekin.

d) Bere helburu eta jarduteko irizpideen artean hauek ere jasoko dituzte: inguruarekiko konpromiso etikoa, enpresen erantzukizun soziala, kalitatezko enplegua eta agindutako zerbitzu publiko hobeak ematea.

2. Lehiakortasunaren Sektorearen barrenean dauden sozietateek, besteak beste, arau eta jarduketaren printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Haien kudeaketaren xedea, batez ere, balioa eta etekin ekonomikoak sortzea izanen da, errentagarritasunaren printzipioarekin bat.

b) Haren jarduera merkatuko arauak zuzenduko dute.

c) Ezin izanen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ente instrumentalaren izaera aitortu Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 8. artikuluari jarraikiz.

d) Bere helburu eta jarduteko irizpideen artean hauek ere jasoko dituzte: inguruarekiko konpromiso etikoa, enpresen erantzukizun soziala eta kalitatezko enplegua.

12. artikulua. Parlamentuaren kontrola.

1. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, zuzendari nagusiarekin, gutxienez ere urtean behin eginen du agerraldia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, urteko aurreikuspeni buruz eta kasuko ekitaldian eginiko kudeaketari buruz informatzeko. Korporazioa osatzen duten sozietatei buruz ere informatuko du. Lehendakariak Korporazioko zuzendari nagusia izendatzen edo ordeztzen denean ere eginen du agerraldia.

2. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, zuzendari nagusiak eta Korporazioa osatzen duten zuzendari nagusiek edo kudeatzaileek agerraldia eginen dute Nafarroako Parlamentuan, eskatzen zaien guztietan, Gobernuko gainontzeko kideen betebeharrak berbera izanen baitute, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, informazioa emate aldera jardueri, funtzionamenduari, egiturari edo eskatzen zaien beste edozein inguruabarri buruz.

Lehen xedapen gehigarria. Sozietateen inbentarioa.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k honakoak biltzen dituen inbentario iraunkor bat egin, onetsi eta mantendu beharko du:

a) Partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateak.

b) Haren partaidetza zuzena eta gutxiengokoa duten sozietateak.

c) a) letran sartutako sozietateetako baten partaidetza zuzena duten sozietateak.

2. Partaidetza handiena, zuzenean nahiz zeharka, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa,

S.M.P.rena duten sozietateak zein jarduera sektoretan sartuta dauden adierazi beharko da inbentarioan.

3. Inbentario horrek ez du erregistro publikoaren izaera edukiko, eta bertako datuak barne kudeaketarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren beraren politikak zehazteko informazio lagungarria izanen dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Zerga onurak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k honako zerga onura hauek izanen ditu Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan:

a) Kapitala eratu eta gehitzeko sozietatearen eragiketarako salbuespena.

b) Sozietatearen kapitala gehitzea ez dakarten ekarpenetarako salbuespena.

c) Bere helburuak betetzeko, lurra eta gainerako higiezinak erosteko eragiketarako salbuespena, bai eta Balioen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1998 Legearen 108.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten entitateen funts berekien partaidetzak eskuratzeko direnenerako ere.

d) Maileguak, kredituak edo abalak bermatzeko sozietatearen alde ematen diren berme mota guztietarako salbuespena.

Hirugarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergaren espezialitateak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ri Sozietateen gaineko Zergaren berezitasun hauek aplikatuko zaizkio:

a) Salbuetsirik egonen da enpresen kapitalaren edo funts berekien partaidetzaren adierazgarri diren balioen eskualdaketan lortutako errentei dagokienez, zein den ere haietan duen partaidetzaren portzentajea edo gradua eta zenbat denbora eduki dituen.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 59.2 artikuluan aurreikusitako kenkaria edo 62.1 artikuluan aurreikusitako salbuespena —errenten jatorriaren arabera— aplikatu ahal izanen die dibidenduei eta, oro har, partaidetzakoak dituen sozietate edo entitateetatik datozen mozkinen partaidetzei, zein den ere partaidetzaren portzentajea eta akzioak edo partaidetzak zenbat denbora eduki diren.

Laugarren xedapen gehigarria. Sozietateak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuei atxikitzea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. eratzeak eta, ondoren, sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzio eta partaidetzak bertan sartzeak ez du aldatuko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuen kontrol funtzionala eta eraginkortasunarena; horrek ez du esan nahi aurrerago ez dela aukerarik izanen egungo atxikipenak aldatzeko, aplikatzekoak diren ondareari buruzko legeekin bat.

Atxikipen hori ukatu gabe, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren eta bertan sartutako sozietate publikoen jarduna, komunikazio publikoaren, publizitatearen eta irudi korporatiboaren arloetan, gai horietan eskuduna den departamentuak ezartzen dituen jarraibideei lotuko zaie.

Bosgarren xedapen gehigarria. Enpresa publikoen langileriaren araubidea.

Foru Lege honetako 6. artikulua Nafarroako Enpresa Publikoa, S.M.P.eko langileriaren araubideari buruz xedatutakoa enpresa publiko guztiei aplikatuko zaie.

Lehen xedapen iragankorra. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sortu eta eratzeko epea.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sortu eta eratzeko eta behar diren tramiteak egiten ditu.

Bigarren xedapen iragankorra. Sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.n sartzeko epea.

Foru lege honen eranskinean ageri diren sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak eransteke epea lau hilabetekoa izanen da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ri eratzten denetik hasita.

Hirugarren xedapen iragankorra. Enpresa publikoen sektorea antolatu eta berregituratzeko plan estrategikoa.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.k, eratu eta urtebeteko epean, gehienez ere, korporazioan sartutako sozietateak antolatu eta berregituratzeko proposamen bat egin eta Nafarroako Gobernuari igorri behar dio. Proposamen horrek jasoko ditu, besteak beste, sozietateak bat egiteko, xurgatzeko, banatzeko eta desegiteko beharrezkoak diren neurriak.

Plan Estrategikoaren proposamenen horrek administrazio kontseiluak osatzeko irizpideak eta funtzionamendu araubidea jasoko ditu, bai eta sozietate publikoen zuzendaritza organoenak eta kudeatzaileenak ere. Administrazioaren sektorean sartutako sozietateen kasuan, negozioazio kolektiborako esparrurik egokiena ezarriko da.

Plan Estrategikoa onetsi ondoren, Administrazio Kontseiluko lehendakariak horren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari, Ekonomia eta Ogasun Batzordean agerraldia eginda.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen aldaketak.

Bat. I. kapituluaren izena aldatu da, hau izan dadin:

“I. kapitulua. Aplikazio esparrua”

Bi. 2. artikuluko f) letra aldatu da, testu hau izateko:

“f) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.”

Hiru. 81. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute zorra jaulki edo kreditua hartzeko, salbu eta aurrekontu ekitaldi berean hitzartu eta bertan behera uzten diren kreditu eragiketak badi-ra.

Nafarroako Gobernuaren baimena Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik tramitatuko da.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta, baimena eman ahal izanen dio Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ri beste aurrekontu ekitaldi batean hitzartu eta bertan behera uzten diren kredituak harpidetzeko edo zorra jaulkitzeko, kopuru zehatz batera mugatuta, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren beraren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zenbait sozietate publikoren beharretan oinarrituta.

Beste aurrekontu ekitaldi batean formalizatu eta bertan behera uzten diren gainerako eragiketak, zorra jaulkitzekoak edo kredituak hitzartzeko-

ak, Nafarroako Gobernuak baimendu beharko ditu berariaz.”

Lau. 82. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute abalak emateko.

Baimen hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik tramitatuko da, eta eragiketa zehatz bakoitzari buruzkoa edo horien multzo bati buruzkoa izan ahalko da.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta, abalak emateko baimena eman

ahal izanen dio Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ri, kopuru zehatz batera mugatuta, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publiko batzuei dagokienez.

Abalak emateko gainerako eragiketatarako Nafarroako Gobernuaren baimen berariazkoa beharko da.”

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ahal izanen ditu.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2009ko irailaren 1ean hartuko du indarra.

1. ERANSKINA

Sozietatearen kapitalaren adierazgarri diren tituluak
Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.an sartuko dituzten sozietateak
eta Nafarroako Foru Komunitateak horietan duen zuzeneko partaidetza

SOZIETATEAK	Nafarroako Foru Komunitatearen zuzeneko partaidetza
Autopistas de Navarra, S.A. (AUDENASA)	% 50,00
Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A. (ANAIN)	% 100
Agencia Navarra del Transporte y la Logística, S.A.	% 100
Baluartte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A. (BALUARTE)	% 100
Canal de Navarra, S.A. (CANASA)	% 10,55
Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI)	% 100
Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. (CTPSA)	% 97,62
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A.	% 100
Gestión de Deudas, S.A. (GEDESA)	% 100
Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A. (ICAN)	% 100
Instituto Técnico y de Gestión Agrícola, S.A. (ITG Agrícola)	% 100
Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A. (ITG Ganadero)	% 100
Mercados Centrales de Abastecimiento de Pamplona, S.A. (MERCAIRUÑA)	% 9,00
Navarra de Financiación y Control, S.A. (NAFINCO)	% 99,99
Navarra de Gestión para la Administración, S.A. (NGA)	% 100
Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA)	% 100
Navarra de Medioambiente Industrial, S.A. (NAMAINSA)	% 100
Navarra de Servicios, S.A. (NASERSA)	% 94,01
Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA)	% 71,48
Navarra de Suelo Residencial, S.A. (NASURSA)	% 100
Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A. (OPNATEL)	% 100
Organización de la Patata en el Pirineo Occidental. S.A. (OPPOSA)	% 33,33
Planetario de Pamplona, S.A. (PLANETARIO)	% 100
Riegos de Navarra, S.A.	% 100
Riegos del Canal de Navarra, S.A.	% 100
Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A. (SODENA)	% 79,78
Sociedad Navarra de Garantía Recíproca (SONAGAR)	% 20,52
Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. (SPRIN)	% 100
Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA)	% 0,004
Viviendas de Navarra, S.A. (VINSA)	% 100

2. ERANSKINA

Nafarroako Foru Komunitatearen zeharkako partaidetza nagusia den sozietateak, 2009ko urtarrilaren 1ean

SOZIETATEAREN IZENA	Nafarroako Foru Komunitatearen partaidetza
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.A. (CEIN)	% 95,92
Circuito Los Arcos, S.L.	% 95
Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L.	% 100
Echauri Forestal, S.L.	% 100
Fondo Jóvenes Empresarios. S.A.U.	% 97,56
Natural Climate Systems, S.A. (MIYABI)	% 65,23
Navarra de Verificaciones Legales, S.A. (NAVELSA)	% 100
Potasas de Subiza, S.A. (POSUSA)	% 100
Producciones Informáticas de Navarra, S.A. (PIN)	% 100
Sal Doméstica, S.A. (SALDOSA)-	% 76
Salinas de Navarra, S.L.U.	% 76
Start Up Capital Navarra, S.A.	% 52,96
Territorio Roncalia, S.L.	% 99
Trabajos Catastrales S.A., (TRACASA)	% 99,99
Tuckland Footwear, S.L.	% 100

3. ERANSKINA

1. eranskineko eta 2. eranskineko sozietateetakoren baten partaidetza zuzena duten sozietateak, 2009ko urtarrilaren 1ean

Partaidetza duen sozietatea	%	Zer sozietatetan duen partaidetza
Baluarteko Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.	% 3,96	Pamplona Convention Bureau, S.L.
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.A.	% 8,02	Start Up Capital Navarra, S.A.
Gestión Ambiental de Viveros y Repoblaciones, S.A.	% 0,85	Navarra de Servicios, S.A.(NASERSA)
Gestión de Deudas, S.A. (GEDESA)	% 0,01	Navarra de Financiación y Control, S.A. (NAFINCO)
Instituto Técnico y de Gestión Agrícola, S.A.(ITG Agrícola)	% 0,85	Navarra de Servicios, S.A.(NASERSA)
Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A.(ITG Ganadero)	% 3,43	Navarra de Servicios, S.A.(NASERSA)
	% 50	Instituto Lactológico de Lecumberri, S.A.
	% 1,30	Aberekin, S.A.
Natural Climate Systems, S.A. (MIYABI)	% 40,00	Eco Ciudades de Navarra, S.A.
	% 11,77	Ecocities Iniciativas Estratégicas, S.L.
Navarra de Financiación Y control, S.A. (NAFINCO)	% 100,00	Navarra de Verificaciones Legales, S.A. (NAVELSA)
	% 22,04	Navarra Iniciativas Empresariales, S.A.
	% 17,78	Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A. (SODENA)
	% 16,03	Start Up Capital Navarra, S.A.
	% 100,00	Potasas de Subiza, S.A.
	% 50,00	Deltor Green, S.L.
	% 100,00	Echauri Forestal, S.L.
	% 22,72	Punto Futuro, F.C.R.
	% 1 00,00	Tuckland Footwear, S.L.
Navarra de Gestión para la Administración, S.A.(NGA)	% 99,99	Trabajos Catastrales, S.A.
	% 90	Producciones Informáticas de Navarra, S.L. (PIN)
	% 10	Grupo S21SEC Gestión, S.A.
	% 20	Angel PC Global Support, S.L.
	% 21,43	Futura Accorp, S.L.
Navarra de Servicios, S.A.(NASERSA)	% 0,01	Trabajos Catastrales, S.A.
Obras Públicas y Telecomunicaciones, S.A. (OPNATEL)	% 1,52	Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. (CTPSA)
Potasas de Subiza, S.A. (POSUSA)	% 76	Sal Doméstica S.A., (SALDOSA)
Riegos de Navarra, S.A.	% 0,85	Navarra de Servicios, S.A.(NASERSA)
Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.(SODENA)	% 23,59	3P Biopharmaceuticals, S.L.
	% 29,18	Activery Biotech, S.L.
	% 44,94	Angel Garro, S.L.
	% 19,50	Caviar del Reyno, S.L.
	% 95,91	Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.A. (CEIN)
	% 26,84	Cromasa Identificación Electrónica, S.A.
		Digna Biotech, S.L.
	% 44,22	Ecoenergía Navarra, S.L.
	% 45,00	Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L.
	% 12,00	Elara Ingenieros, S.A.
	% 16,66	Epsilon 5, S.A.
	% 45,00	Estudios de Ingeniería Adaptada, S.L. (EINA)
	% 10,00	Finaves II SRC, S.A.
	% 21,76	Fondo de Desarrollo Turístico SPE, S.A.

	% 100,00	Fondo Jóvenes Empresarios Navarros SPE, S.A.
	% 15,00	Foro Europeo de Formación Empresarial, S.L.
	% 23,77	Idifarma Desarrollo Farmacéutico, S.L.
	% 33,16	Ingeniería Domótica, S.L.
	% 6,50	Inveready Seed Capital CSR, S.A.
	% 45,00	Lorpenak Navarra, S.L.
	% 25,00	MCC Navarra SPE, S.A.
	% 20,00	MTS Tobacco, S.A.
	% 31,50	Natural Climate Systems, S.A. (MIYABI)
	% 4,76	Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA)
	% 25,89	Ojer Pharma, S.L.
	% 44,93	Olus Tecnología, S.L.
	% 14,00	Open Bravo, S.L.
	% 44,88	Pamplona Learning Spanish Institute, S.L.
	% 45,00	Parque de la Naturaleza de Navarra, S.A. (Senda Viva)
	% 19,50	Piscifactoría Sierra Nevada, S.L.
	% 5,00	Principia Technology Group Inc.
	% 8,00	Proyecto Biomedicina Cima, S.L.
	% 42,60	Smart Medical Group, S.L.
	% 18,17	Sociedad Logística Alimentaria Navarra, S.L. (SLAN)
	% 24,80	Soluciones y Sistemas Solares, S.L.
	% 29,97	Start Up Capital Navarra, S.A.
	% 34,00	Suan Biotech FCR
	% 20,49	Twin Screw 2007, S.L.
	% 10,00	UTE Cima
	% 26,32	Wututu, S.L.
	% 14,89	Ysios Biofund I FCR, de régimen simplificado
	% 0,58	Iberdrola, S.A.
	% 100	Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L.
	% 95	Circuito los Arcos, S.L.
Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.(SPRIN)	% 99	Territorio Roncalia, S.L.
	% 50	Tecnología Navarra de Nanoproductos, S.L.
	% 45,00	Alpe Metrología Industrial, S.L.
	% 19,16	Cromasa Identificación Electrónica, S.A.
Start Up Capital Navarra, S.A.	% 33,53	Nuonet Gestión, S.L.
	% 29,41	Biomasa Térmica de Navarra, S.L.
	% 29,41	KSI, S.L.
	% 40,00	U Rock Films, S.L.
	% 40,00	Reduce Destrucción Documental
	% 50	Tasaciones y Consultoría, S.A.
	% 50	Técnica Cartográfica Andaluza, S.A.
Trabajos Catastrales, S.A.(TRACASA)	% 50	GEA Trabajos de Consultoría, S.L.
	% 50	Comunicación e Información al Ciudadano, S.L.
	% 50	Ingegneria Teritoriale e Catasto, S.R.L.
	% 42,50	Regional Geodata Air, S.A.
	% 12,61	Getmapping España, S.L.
	% 10	Producción Informática de Navarra, S.L. (PIN)
	% 34,50	Natural Climate Systems, S.A. (MIYABI)
Viviendas de Navarra, S.A. (VINSA)		

Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen bidez aldatzen da sozietatearen kontzeptua, orain arte Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikuluan b) letran jasoa dena, hemendik aurrera sozietate publikoak izanen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo erakunde autonomoen partaidetza, zuzena nahiz zeharkakoa, 100eko 50ekoa edo handiago dutenak; halatan, sozietate publikoa definitzen duen irizpidea bateratu eta kontzeptu bakar batean biltzen da, eta aldi berean saihesten ondareari buruzko foru araudiaren arabera sozietate publikoak diren gainerakoek izaera galtzea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sortzearen eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa

S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko foru legean aurreikusitako gainerako akzio eta sozietate-partaidetzak eskuratzearen ondorioz. Gainera, komeni den bezala, kontzeptuak homogeneizatzeari lortzen da, batez ere Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearekin, arau hori ere egokituta baitago kontzeptu berri horretara aipaturiko foru legearen azken xedapenetako lehenaren bitartez.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikuluko b) letra aldatu da, testu hau izateko:

“b) Sozietate publikoak. Halakotzat hartzen dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde publikoek sozietatearen kapitalean duten partaidetza, zuzena nahiz zeharkakoa, 100eko 50etik gorakoa denean”.

Azken xedapenetako lehena. Foru lege hau gehiago osoko foru legetzat kalifikatzea.

Foru lege hau gehiago osokoa da Foru Errentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 45.6 artikuluen arabera

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitun egunera hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen

eta 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de

Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Foru Lege proposamena, hauteskunde-gastuak gutxitzeari buruzkoa.

Proposamen hori 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan." Horren jatorria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasun eta ezgaitasun inpaktuari buruzko txostenak egin beharra arautu dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du modua azter dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakundeen xedapen orokorrak –eta, kasu bada, gainerako administrazio publiko, entitate eta Nafarroako enpresa publikoenak– egiteko prozeduratan, eta, horrenbestez, xedapen horiek jasotzen dituzten neurriak onetsi aurretik, xedapen horiek izan dezaketen eragina ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrezanetan eta zailtasunetan, batez ere pertsona horien irisgarritasunari dagokionez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako osasun prestazioen katalogoa gaurkotu, berritu eta bateratu dezan eta Nafarroako osasun zerbitzu publikoen zorroan jaso dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta epe laburrenean

bete dadin uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeak xedaturikoa; bereziki, lehenbizi aipaturiko lege horretako 15. artikuluari eta bigarren legeko lehen xedapen gehigarriari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erregelamendu bidez aldizkakotasun zehatz bat finka dezan Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoen Departamentuarterko Batzordearen bileretarako deialdiak egiteko. Aldizkakotasun horrek sei hilabete behinekoa izan beharko luke, gutxienez ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean jarduketa-plan bat aurkez dezan, non finkatuko baitira beharrezkoak diren neurri, egutegi eta diruzenbatekoak, gaur egun herritar guztien irisgarritasun-eskubidearen inguruan dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeko xedapen gehigarriak zehazten duen moduan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jabetza horizontalaren gaineko jarduketei buruzko legediaren aldaketa susta dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jabetza horizontalaren gaineko jarduketei buruzko legediaren aldaketa susta dezan.”

Legebiltzarrak 2009ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruz (PES-370/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ondoko eranskinean ikus daiteke Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planen gaurko egoerari buruzko laburpena. Bertan, bioerregioen araberrako eta haien lanketaren eta behin betiko onespeneraren egoeraren araberrako multzoak ageri dira.

Batasunaren intereseko lekuen kudeaketa planak egiteko plangintza erkidegoen erabakien araberrako gauzatzen da. Erabaki horien araberrako, Nafarroa kokatuta dagoeneko bioerregioei dagokienez, proposaturiko lekuak ondoz ondo onesten joan ziren, eta hartara bioerregio bakoitzaren behin betiko zerrenda ez ezik, kudeaketa plan horiek egiteko egutegia ere osatu zen. Honakoak izan ziren erabakiak:

- Erregio Biogeografiko Alpinoa: 2004/69/CE Erabakia, 2003ko abenduaren 22koa

- Erregio Biogeografiko Atlantikoa: 2004/813/CE Erabakia, 2004ko abenduaren 7koa

- Erregio Biogeografiko Mediterraneo: 2006/613/CE Erabakia, 2006ko uztailaren 19koa

Natura 2000 Sareko batasunaren intereseko lekuen kudeaketa planei bukaera emateko aurreikusitako den data, beraz, aipatu erabakietan aurreikusitakoa da; honela laburbil daiteke:

- Erregio Biogeografiko Alpinoa: 2009ko abendua

- Erregio Biogeografiko Atlantikoa: 2010eko abendua

- Erregio Biogeografiko Mediterraneo: 2012ko uztaila

Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusi Natura 2000 Sarearen barruan batasunaren intereseko leku gehiago sortzea. Hala eta guztiz ere, kudeaketa planak egiteko behar den informazioa lantzeko lan teknikoak erakuts dezake bere garaian proposaturiko batasunaren intereseko lekuen mugak aldatzea edo egokitzea komeni dela, eskuratutako ezagutza tekniko hobeari jarraituz, Natura 2000 Sarearen garapenean jaso bezala, betiere 92/43 Zuzentarauari jarraituz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 9an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, 2009rako opera programazioaren gaineko koordinazio ezari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du 2009rako opera programazioaren gaineko koordinazio ezari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik ez dagoen inolako koordi-

naziorik Kultura eta Turismo Departamentuaren aldetik hilabete bakarrean bi opera programatzeari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kultura eta Turismo Departamentuak koordinazioa egiten du eta programazioa eskaintzaren, osotasunaren eta ikus-entzuleen eskariaren arabera egiten da, bai eta konpainiek biretarako daukaten egutegiaren arabera ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2009ko urriaren 31n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruz (PES-372/08). Hona Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak etengabeko harremanak izan ditu Canal 4 Navarra telebistako arduradunekin, kate hori atxikita dagoen "Localia" sareko tokiko telebistak ixteko planaren berri izan bezain laster, hain zuzen ere komunikabideetan iragarri baino egun batzuk lehenago.

Halaber, foru gobernuak Canal 4 Navarrako langileen ordezkariekin bildu zen, haiei bermatzeko enpleguei eustea izanen zutela lehenengo helburua. Asmo hori Prisako eta Pretesako arduradunei ere jakinarazi zitzaion, haien menpe baitzegoen Localia. Izan ere, arduradun horiek jakinarazi zigten Canal 4 Navarrako emisioak aurtengo otsailaren bukaerara arte luzatuko zirela, telebista hori zenbait konpainia aztertzen ari ziren salmentakoaderno batean baitzegoen.

Canal 4 Navarrako jabeak egiten ari diren kudeaketak bukatzeko zain gaudela, ez dagokio Nafarroako Gobernuari enpresarako erosleak bilatzea. Soilik negoziatio horiek porrot eginez gero, balizko ordezeko formula batzuk eskainiko lituzke.

Haietan guztietan, betiere, Canal 4 Navarrako lanpostuei eusteko beharra jaso beharko litzateke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2009ko urtarrilean

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeetako Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko 2009ko aurrekontuetan, zehazki zein kontusailletara bideratuko den errenta aitorpenean “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxo markatzearen ondorioz biltzen den diru kopurua (PES-373). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

PFEZaren zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotako ehuneko bat gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratu ahal izateko aukera 1988. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 23ko 33/1987 Legearen bitartez ezarri zen.

2000. urtetik aurrera, 2000. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko 54/1999 Legea onetsiz, aukera ematen da zergadun bakarrak kasuko ehunekoak bideratu ahal izan ditzan batera Eliza Katolikoa finantzatzeko eta gizarte-intereseko proiektuetarako.

Nafarroan, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 8.2 artikuluan eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 4. artikuluan xedatuaren arabera, PFEZetik lorturiko baliabideak betebeharraren publikoen osotasuna finantzatzeko erabiltzen dira, eta diru-bilketaren zati bat ez dago xede zehatz bati edo batzuei atxikirik.

Gastu jakin batzuei atxikirik ez egoteak ez du esan nahi Foru Komunitateak finantza-baliabiderik bideratzen ez duenik gizarte intereseko jarduerak egiteko.

Nafarroak egindako ahaleginaren erreferentzia bat edukitzeko, eta Estatuko datuekin alderatu ahal izateko, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako azken arauetan oinarrituta –Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren otsailaren 29ko 592/2008 Agindua, zeinak arau-oinarriak ezarri eta PFEZaren tributu-asignazioaren kargura lankidetzako eta boluntarioentzako programa sozialak egiteko dirulaguntzak ematen baititu–, ondokoak dira 2009rako aurreikusitako gastuak, eurotan adieraziak:

Programa	Kontusaila	91400	4819	231000	Kongresuetarako transferentziak	4819	7819	Batura
900	900001	91400	4819	231000	Kongresuetarako transferentziak	10.000		
	900003	91600	4819	231500	Elkarte eta entitateentzako dirulaguntzak	400.000		
	900003	91600	4819	231603	(**) Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntzak	623.500		
	900003	91600	4819	231604	Etxebizitza programako entitate laguntzaileentzako dirulaguntza	368.500		
	900003	91600	4819	231605	Etorकिन gizarteratzeko laguntza programa	100.000		
	900003	91600	4819	231607	Salhaketarentzako dirulaguntza: Larrialdiko laguntzak, indarkeria sexistaren biktima izan diren emakumeentzat	120.000		
	900003	91700	4819	231600	Gizakia Helburu fundazioaren inbertsioetarako transferentzia	102.000	200.000	
	900001	91400	7819	231602	Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia	1.724.000	200.000	1.924.000
920	920005	91810	4819	231000	Boluntarioen ekintzak	150.000		
	920005	91810	4819	231002	(**) Ixaropenaren telefonoarentzako dirulaguntza	60.000		
	920005	91810	4819	231300	Ezgaitasunak dituzten pertsonen arloko entitateek lan egiteko dirulaguntzak	1.349.288		
	920005	91810	4819	231302	GIBa duten gaixoentzako zentroetarako dirulaguntzak Hogar Zoe	159.103		
	920005	91810	4819	231303	(**) ASORNAreko hitzarmena, zeinuen hizkuntzako interpreteen zerbitzurako Garuneko perlesia eta antzeko gaixotasunak dituzten pertsonentzako lanerako zentroekiko hitzarmena	50.000		
	920005	91810	4819	231304		158.495		

900 programa, guztira Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia

920005	91810	4819	231306	(**) Corminekiko hitzarmena: ezgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko programa	100.000
920005	91810	4819	231307	(**) Ezgaitasuna duten pertsonen oportetako programak egiteko laguntzak	230.001
920005	91810	4819	231308	Javier egoitzarekiko hitzarmena	860.508
920005	91810	4819	231309	ANFASekiko hitzarmena: etxebizitza-programa	497.026
920005	91810	4819	231310	(**) Ezgaitasunak dituzten pertsonen arioko entitateen programetarako dirulaguntzak	652.006
920005	91810	4819	231311	(**) UGTrekin eta COOrekin eginiko hitzarmena, Gizarte Gaietako Legea garatzeko eta ezgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzeko	200.000
920005	91810	4819	231312	(**) Eunate Elkartearentzako dirulaguntza, ikus-entzunezkoen erabilerraztasunari buruzko nazio mailako laugarren bitzarrerako	40.000
920005	91810	4819	231313	(**) ANFASentzako laguntza berezia – 2008ko defiziterako dirulaguntza	40.000
920005	91810	4819	231402	Jubilatuaren elkarrekin eta klubek lan egiteko dirulaguntzak	1.185.607
920005	91810	4819	231403	(**) Gurutze Gorriaren baliabide zentroa	60.000
920005	91810	4819	231404	(**) Jubilatuen elkarrekin eta klubetako programetarako dirulaguntzak	397.138
920005	91810	7819	231302	Garraio egokituaren eta lagunduaren flota berritzea	90.000
920005	91810	7819	231402	Gurutze gorriarekiko programarako laguntza teknikoak	10.000

920 programa, guztira	Nafarroako Mendekotasun Agentziaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak				6.189.172	100.000	6.289.172
930	930001	94000	4819	232200	(**) Emakumeen elkarrentzako eta beste entitate batzuentzako transferentziak	150.001	
930 programa, guztira	Nafarroako Berdintasunerako Institutua.					150.001	0 150.001
950	950001	92200	4819	231502	Familiaren arloko dirulaguntzetarako deialdia	20.000	
	950001	92210	4819	231500	Lantokietako haurtzaindegietarako dirulaguntza	50.500	
	950001	92210	4819	231506	Haur-etxeak eta familia eta lana uztartzeko bestelako proiektuak	321.660	
	950002	92300	4819	231700	Adingabearen arloko dirulaguntzetarako eta eskola-tailerretarako deialdia	490.856	
950 programa, guztira	Familia eta haurtzaroa					883.016	0 883.016
960	960002	96100	4819	232100	Gazteen elkarleen programetarako dirulaguntzak	617.875	
	960002	96100	4819	232102	Gazteriaren Kontseilua	55.000	
	960002	96100	4819	232103	Gazteei zuzenduriko laneratze-programa (**)	22.500	
	960002	96100	4819	232104	UGTrekin eta CCOOrekin izenpetutako hitzarmena, gazteei lanerako orientabideak emateko	110.000	61.500
	960001	96100	7819	232100	Gazteen entitateen ekipamendua	805.375	61.500 866.875
960 programa, guztira	960 Gazteriaren sustapena:						
510	510000	51200	4819	313900	(**) GKE-ekiko hitzarmenak (HIESa)	414.000	
	510000	51200	4819	313903	Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena	143.500	

510 programa, guztira Publikoa				557.500	0	557.500
B40	B40000	B0200	4819 231902	Eikarteen prestakuntza eta sentsibilizatzeko jardueretarako transferentziak	35.000	
	B40000	B0200	4819 231904	UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko	350.000	
	B40000	B0200	4819 231905	UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko 3 FSE Helburua	250.000	
	B40000	B0200	4819 231906	(**) Gurutze Gorriarekiko hitzarmena, etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko 3 FSE Helburua	57.000	
	B40000	B0200	4819 231907	(**) FAIN Nafarroako Immigranteen Eikarteen Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena	31.000	
B40 Programa, guztira			Immigrazioarako Bulegoa		723.000	0
PROGRAMAK, GUZTIRA					11.032.064	361.500
					11.032.064	11.393.564

	Trans. arruntak	Kap. Tranf.	Guztira
Programa	1.724.000	200.000	1.924.000
900 Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia	6.189.172	100.000	6.289.172
920 Nafarroako Mendekotasun Agentziak eta Familiaren Zuzendaritza Nagusia	150.001	0	150.001
930 Nafarroako Berdintasunerako Institutua.	883.016	0	883.016
950 Familia eta Haurrak	805.375	61.500	866.875
960 Gazteriarren Sustapena	557.500	0	557.500
510 Osasun Publikoa			
B40 Immigrazioarako Bulegoa	723.000	0	723.000
Programak, guztira	11.032.064	361.500	11.393.564

Nazioarteko garapenerako lankidetzak						
900	900001	91200	4819	143100	Nafarroako Medicus Mundiren proiektuak	1.475.000
	900001	91200	4819	143103	Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak	50.000
	900001	91200	4819	143104	(**) Giza laguntza Saharako biztanleentzat	275.000
	900001	91200	4819	143106	(**) Garapenerako lankidetzari buruzko prestakuntza, ikerketa eta laguntza teknikoa	733.623
	900001	91200	4819	143102	(**) Nazioarteko garapenerako lankidetzak	18.579.130
	900003	91600	4819	143100	(**) Nafarroako Garapenerako GKE-en Koordinadoreentzako dirulaguntza	30.000
						21.142.753
Programa						Trans. arruntak
900 DG Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia						21.142.753

Aurreko informazioaren osagarri, Nafarroako PFEZaren zergadunek eginiko asignazioei buruzko datuak daude, 2007ko zergaren azken aitortuari dagozkionak:

	NAFARROA-PFEZa/ 2007			
	Aitorpen-egileen kopurua		Kuota osoa, guztira	
	Balio absolutua	%	Balio absolutua (eurotan)	%
Zurian	68.114	% 14,72	82.529.440,67	% 5,58
Eliza	180.625	% 39,02	675.880.058,97	% 45,67
Besterik	193.775	% 41,87	644.801.590,30	% 43,57
Biak	20.335	% 4,39	76.838.356,82	% 5,19
Guztira	462.849	% 100,00	1.480.049.446,76	% 100,00

Aurreko kopuruei kuota osoaren % 0,7 aplikatuz gero, gizarte intereseko xedeetarako kopurua bost milioi eurokoa izanen litzateke, gutxi gorabehera.

Iruñean, 2009ko azaroaren 15ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla